3.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote, aurrezki-kutxen eta banku-fundazioen 26/2013 Legeak, abenduaren 27koak, xedatutakoarekin ados, gai horren inguruan dugun euskal arautegia aldatzeari ekin diezaion; horretarako, Euskadiko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen lege proiektua egin beharko du, hori izapidetu eta onetsi ahal izateko. Ahal duen neurrian, aipatutako lege proiektua ekitaldi honetan egin beharko du.

4.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Vitoria-Gasteizko Udalari eskatzen diete, entitate fundatzaile direnez, egungo euskal Aurrezki Kutxen gizarte-ekintzaren alde egin dezaten, baita aurrezki kutxek Euskal Autonomia Erkidegoko garapen ekonomiko eta sozialari laguntzen jarraitu behar dutela ere.

5.- Arabako Biltzar Nagusiek euskal Aurrezki Kutxen gobernu-organoei eskatzen diete, banku-fundazio bihurtzek prozesuan, partehartzea, gardentasuna eta legea betetzen dutela berma dezatela, baita euren gobernu-organoetako kideen ordezkagarritasuna ere.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 14a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ORGANISMO AUTONOMOAK

### GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2495

**Unibertsitateko eta unibertsitatetik kanpoko ikasle gazteei dirulaguntzak emateko oinarri arauemaile orokorrak.**

**Lehenengoa.- Deialdiaren xedea**

Oinarri hauen xedea da aurrekontu kredituetatik ordaindu beharreko dirulaguntzak arautzea, Gazteriaren Foru Erakundearen eskumen esparruan. Deialdi bakoitzean zehaztuko dira laguntza horiek.

**Bigarrena.- Laguntza lerroak**

• Norbera bizi den udalerritik kanpo ikasketak egiteko joan-etorrietako gastuak.

• Gazteriaren Foru Erakundearen eskumen eremuko beste proposamen batzuk.

**Hirugarrena.- Betekizun orokorrak**

Deialdian zehazten diren betekizunez gainera, kasu guztietan:

1) Onuradunak:

a) Eskaera aurkezten den urtean gehienez 30 urte betetzen dituzten ikasleak.

b) Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar dira.

c) Deialdietan zehazten diren kurtsoetan matrikulatuta egon behar dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikasle adingabeen gurasoek edota tutoreek, edo adingabeen babesaren arloko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide haien ardura hartuta duten pertsonek.

2) Ikasketak eta eskolaldia:

a) Unibertsitateaz kanpoko ikasketak: Batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketa arautua.

b) Unibertsitate ikasketak: erdi mailako edo goi mailako unibertsitate ikasketa ofizialak, tartean direla karrera amaierako proiektuak eta unibertsitateen titulu berekiak.

Ikasketa mota hauek bazter uzten dira: masterrak, doktoregoak, gai jakinetan adituak, beste prestakuntza batzuetarako edo oposizio eta antzekoetarako trebatzeko ikastaroak, ikerketa, graduatu ondoko eta espezializazioko ikasketak, eta urrutiko ikasketak.

Dirulaguntzetarako onartuko den aldia ikasturte bakoitzeko irailetik ekainera artekoa da.

Ikasturtea amaitutakoan emango dira laguntzak.

3.- Las Juntas Generales de Álava solicitan al Gobierno Vasco a que, de conformidad con lo estipulado en la Ley 26/2013, de 27 de diciembre, de cajas de ahorros y fundaciones bancarias, proceda a la adaptación de la normativa vasca sobre la materia a través de la elaboración de un proyecto de ley de Cajas de Ahorros y Fundaciones bancarias de Euskadi de tal modo que sea posible su tramitación legislativa y aprobación, en la medida de lo posible, dentro del presente ejercicio.

4.- Las Juntas Generales de Álava solicitan a la Diputación Foral de Álava y al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz a que, como entidades fundadoras, defiendan el futuro de la obra social de las actuales Cajas de Ahorro vascas y la continuidad del compromiso de las mismas con el desarrollo económico y social de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.- Las Juntas Generales de Álava solicitan a los órganos de gobierno de las Cajas de Ahorros vascas que en su proceso de transformación en fundaciones bancarias se garantice la participación, la transparencia y el cumplimiento de la legalidad, así como la representatividad de los miembros de sus órganos de gobierno.

Vitoria-Gasteiz, 14 de mayo de 2014.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ORGANISMOS AUTÓNOMOS

### INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

2495

**Bases generales reguladoras para la concesión de subvenciones a las y los jóvenes estudiantes universitarios y no universitarios.**

**Primera.- Objeto**

Es objeto de las presentes bases regular el acceso a las ayudas económicas con cargo a los créditos presupuestarios, dentro del ámbito competencial del Instituto Foral de la Juventud y que se especificarán en la convocatoria correspondiente.

**Segunda.- Líneas de ayuda**

• Gastos de desplazamiento a municipio diferente al de residencia para cursar estudios.

• Otras propuestas que estén dentro del ámbito competencia del Instituto Foral de la Juventud.

**Tercera.- Requisitos generales**

En todo caso y además de los que se detalle en la convocatoria:

1) Personas beneficiarias:

a) Las y los estudiantes de menos o igual de 30 años, cumplidos en el año de solicitud.

b) Estar empadronadas en el Territorio Histórico de Álava.

c) Estar matriculadas en los cursos académicos que se detallen en las convocatorias.

En el caso de alumnos/as menores de edad, los padres, madres y/o tutores o personas encargadas por razón de tutela o acogimiento formalizado ante la Entidad Pública con competencia en materia de protección de menores de los estudiantes que cumplan los requisitos indicados en el párrafo anterior.

2) Estudios y periodo lectivo:

a) Estudios no universitarios: bachillerato, formación profesional reglada de grado medio y superior.

b) Estudios universitarios: Estudios oficiales universitarios medios o superiores, incluidos los proyectos de fin de carrera y los títulos propios de las universidades.

Se excluyen las modalidades de estudios: máster, doctorados, expertos en materias determinadas, cursos de preparación para acceso a otras formaciones o aspectos como oposiciones y análogas, investigación, postgrado y especialización y las enseñanzas a distancia.

El periodo lectivo subvencionado comprenderá el espacio de tiempo incluido entre los meses de septiembre a junio de cada curso académico.

Las ayudas se concederán a curso pasado.

3) Onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

Erakundeak egin beharreko egiaztapenei men egitea, eta hark zuzenean edo Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bidez, Kontuen Epaitegiaren bidez, baimendutako auditoreen bidez edo beste erakunde eskudun batzuen bidez eskatzen duen informazio guztia ematea.

Erakundeari berehala jakinaraztea administrazioek edo erakunde publiko zein pribatuek emandako edozein dirulaguntza edo laguntza eskuratu izana. Horretaz gain, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen diren aldaketak jakinaraziko dira.

**Laugarrena.- Dirulaguntzak ematea**

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta, kasuan kasuko deialdian besterik zehaztu ezean, lehia soila izango da.

Diru kopuru finkoa emango da. Zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da zer distantzia dagoen ikaslea bizi den herritik ikastetxeraino.

Distantziak kalkulatzeko http://maps.google.es web tresna erabiliko da, eta ibilbiderik laburrena hautatuko da.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkeztea**

1.- Eskaerak Gazteriaren Foru Erakundean aurkeztu beharko dira, berariaz diseinatuko diren ereduetan. Eredu horiek eskuragarri egongo dira aipatutako erakundearen bulegoetan eta haren web orrian: www.alava.net/ifj. Deialdi bakoitzean eskatzen diren agiri osagarriak erantsiko dira.

Eskatzaileak sinatuko du inprimaki ofiziala. Eskatzailea adingabea bada, aitak, amak edo tutoreak sinatuko du.

2.- Dirulaguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

3.- Deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da eskaerak aurkezteko epea.

4.- Aurkeztutako eskaerekin batera eskatutako agiriak aurkezten ez badira edo emandako informazioa nahikoa ez dela uste bada, hamar egun baliodun izango du dirulaguntza eskatu duen erakundeak eskatzen zaizkion agiri horiek aurkezteko. Eskatutako agiriak ez badira bidaltzen arestian adierazitako epean, erakundeak eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta laguntza ezetsiko zaio.

5.- Eskaera behar bezala betetzat eman dadin, eskaera egiteko inprimakietan eskatzen diren agiri guztiak erantsi behar dira, eta proiektuari buruz emandako informazioa nahikotzat jo behar du Gazteriaren Foru Erakundeak.

6.- Eskaeran ageri den helbidea erabiliko du Gazteriaren Foru Erakundeak jakinarazpenetarako. Eskatzailearen zeregina izango da datuetan egondako edozein aldaketaren berri ematea berariaz Gazteriaren Foru Erakundeari, batik bat eskatzailearen helbide aldaketari edo bere banku kontuko datuei buruzko aldaketa egon bada.

7.- Behar beste informazio eskatu ahalko dio Gazteriaren Foru Erakundeak eskatzaileari, emandako datuak egiaztatzeko, laguntza emateko edozein izapidetze fasetan, bai eta dirulaguntzaren inguruko behar beste dokumentazio osagarri ere.

**Seigarrena.- Dokumentazioa**

Eskaerarekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a) Laguntza eskaera, Gazteriaren Foru Erakundeak banatuko duen inprimaki normalizatuan.

b) Ikaslearen NANaren fotokopia, edo, ikaslea adingabea bada, eskatzailearen NANarena.

c) Ikaslea adingabea bada, familia liburuaren fotokopia.

d) Ikaslea adingabea bada eta harreran edo tutoretzapean badago, egoera horren frogagiria.

3) Son obligaciones de las personas beneficiarias:

Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Instituto y facilitar cuanta información le sea requerida por éste, directamente o a través del Departamento de Hacienda, Finanzas y presupuestos de la Diputación Foral de Álava, el Tribunal de Cuentas, de auditores autorizados o de otros órganos competentes.

Comunicar de inmediato al Instituto la obtención de subvenciones o ayudas de toda clase procedentes de cualesquiera administraciones o entidades públicas o privadas, así como las de alteraciones en las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de subvención.

**Cuarta.- Concesión de subvenciones**

El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones, será de concurrencia simple, salvo excepciones consignadas en la convocatoria correspondiente.

Su importe será una cantidad fija que se determinará en función de la distancia entre la población donde se ubica el domicilio y el del centro docente al que asistan los y las estudiantes.

Para la determinación de las distancias se utilizará la herramienta web http://maps.google.es Para el cálculo de las mismas se considerará el trayecto más corto.

**Quinta.- Presentación de solicitudes**

1.- Las solicitudes deberán presentarse en el Instituto Foral de la Juventud, en los modelos que se diseñen a tal efecto y que estarán disponibles en las oficinas del citado organismo en su página web www.alava.net/ifj. Se adjuntará la documentación complementaria que le sea requerida en cada convocatoria.

El impreso oficial, estará firmado por la persona solicitante. Si ésta fuera menor de edad la efectuará su padre, madre o tutor/a.

2.- La presentación de solicitudes para optar a estas subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en las presentes Bases.

3.- El plazo de presentación de solicitudes será el que se establezca en la convocatoria.

4.- Si las solicitudes presentadas no son acompañadas de la documentación requerida o si la información facilitada no se considera suficiente, se requerirá a la entidad solicitante para que en un plazo de 10 días hábiles remita la documentación que corresponda. Si no enviase la documentación requerida en el plazo señalado anteriormente, se tendrá por desistida su petición, procediéndose a la denegación de la ayuda.

5.- Se entenderá que una solicitud se encuentra debidamente cumplimentada cuando la misma incluya toda la documentación exigida en los impresos de solicitud y la información sobre el proyecto sea la suficiente a juicio del Instituto Foral de la Juventud.

6.- A efectos de notificaciones, el Instituto Foral de la Juventud hará uso del domicilio que figure en la solicitud. Será cometido de la persona solicitante informar expresamente al Instituto Foral de la Juventud de cualquier variación de datos que haya podido haber, especialmente en lo referente al domicilio del solicitante y a los datos de su cuenta bancaria.

7.- El Instituto Foral de la Juventud podrá requerir de la persona solicitante cuanta información considere necesaria para la comprobación de los datos aportados en cualquiera de las fases de tramitación de la ayuda así como cualquier otra documentación complementaria relativa a la subvención.

**Sexta.- Documentación**

Las solicitudes deberán acompañarse de la siguiente documentación:

a) Solicitud de ayuda en impreso normalizado que será facilitado por el Instituto Foral de la Juventud.

b) Fotocopia del DNI del alumno/a o, si es menor de edad, del peticionario/a.

c) Fotocopia del libro de familia (para los y las estudiantes menores de edad).

d) En caso de acogimiento o tutela, documento acreditativo de la citada situación (para los y las estudiantes menores de edad).

e) Ikaslea Araban deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n erroldatuta dagoeneko egiaztagiria.

f) Matrikulazioaren agiria. Horren bidez frogatu behar da ikaslea matrikulatuta dagoela hirugarren oinarrian aipatutako ikasketetan, ikasturtean zehar, bigarren oinarrian aipatutako hezkuntza zentroetako batean.

g) Eskatzailearen banku libretaren fotokopia.

h) Deialdian eskatzen den beste edozein agiri.

**Zazpigarrena.- Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean**

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik bada, eta, edonola ere, beste administrazioren batek edo erakunde publiko zein pribaturen batek, dela nazionala, dela nazioartekoa, aldi berean beste dirulaguntzarik edo laguntzarik ematen badu, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

**Zortzigarrena.- Balorazio Batzordea eta ebazpena**

Deialdian zehazten diren pertsonek osatutako Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horrek dirulaguntzak ematea proposatzeko txostena egingo du, eta Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko ahalmena duen organoak, Gazteriaren Foru Erakundearen egiturari eta funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan zehaztutako organoak, hain zuzen ere, ebatzi egingo du, eskaerari baiezkoa edo ezezkoa emanez, deialdi bakoitzean ezarritako epean.

Oinarri hauei eta deialdi honetatik sortutako administrazio egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran– ezarritako egoera eta eretan. Eskatzaileari ez zaio entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira kontuan hartuko ebazpenean.

**Bederatzigarrena.- Datuen babesa**

1.- Eskaerak betetzearen ondorioz lortzen diren datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordeko dira, bertan tratatu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat etorriz. Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko fitxategi hori, eta bertako datuak ezin izango zaizkie hirugarrenei laga.

2.- Sarbide, zuzenketa eta ezeztapen eskubideei buruzko edozein kontsulta edo ohar egin nahi bada (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa), Gazteriaren Foru Erakundearen bulegoetara (Probintzia plaza, 5-3. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz. Araba) jo beharko da.

3.- Interesdunak datu horiek fitxategian sartzeari uko egiten badio, ez du jasoko dirulaguntzarik.

**Hamargarrena.- Instrukzioa**

Prozedura antolatu eta instruitzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundea da.

**Hamaikagarrena.- Dirulaguntza aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu eta dirulaguntzaren zati bat itzuliko da.

**Hamabigarrena.- Dirua bideratzea**

1.- Dirulaguntzentzako gehienezko zenbatekoa ezarriko du deialdiak, bai eta egotzitako aurrekontu partidak ere.

2.- Aurrekontu ekitaldian emandako laguntzak, guztira, ez dira kontsignazio hori baino gehiago izango, edo aurrekontu aldaketak onartuz geroko eguneratzetik sortutakoa baino gehiago, deialdia ebatzi aurretik.

e) Certificado del alumno o alumna de hallarse empadronada en Álava a fecha 31 de diciembre al año anterior a la correspondiente convocatoria.

f) Documento acreditativo de matriculación en los estudios mencionados en la base tercera, durante el curso académico, en un centro educativo incluido en la base segunda.

g) Fotocopia de la cartilla de la entidad bancaria cuyo titular sea la persona solicitante.

h) Cualquiera otra que se requiera en la convocatoria.

**Séptima.- Concurrencia de las subvenciones**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

**Octava.- Comisión de valoración y resolución**

Las solicitudes serán examinadas por una Comisión de Valoración compuesta por las personas que se determinen en la convocatoria. Esta comisión redactará un informe de propuesta de concesión y el órgano facultado para la autorización, disposición y ordenación de gastos del Instituto Foral de la Juventud, de acuerdo con lo establecido en el artículo 16 del Decreto Foral 26/2010, del Consejo de Diputados de 8 de junio, que modifica el Reglamento de estructura y funcionamiento del Organismo Autónomo Instituto Foral de la Juventud, resolverá concediendo o denegando la solicitud en el plazo que se establezca en cada convocatoria.

Las presentes bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero. Se prescindirá del trámite de audiencia, por no ser tenidos en cuenta en la resolución otros hechos y documentos que los presentados por los solicitantes.

**Novena.- Protección de datos**

1.-Los datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de las solicitudes serán incorporados para su tratamiento a un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter personal. El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de subvenciones de este Instituto Foral de la Juventud.

2.- Cualquier consulta o comentario personal relativos al ejercicio de derechos de acceso, cancelación, rectificación que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, deberá remitirse a las oficinas del Instituto Foral de la Juventud, Plaza de la Provincia, 5-3º, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

3.- El derecho de oposición a la incorporación de los citados datos en el fichero, dará como consecuencia la denegación de las ayudas.

**Decima.- Instrucción**

El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento de concesión es el Instituto Foral de la Juventud de la Diputación Foral de Álava.

**Undécima.- Modificación de la subvención**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión, así como al reintegro parcial de la subvención.

**Duodécima.- Consignación**

1.- La Convocatoria fijará la cuantía total máxima destinada a las subvenciones convocadas y las partidas presupuestarias a las que se imputan.

2.-El volumen total de las ayudas concedidas dentro del ejercicio presupuestario, no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones

Edonola ere, kasuan kasuko deialdietan, mugatu egin ahal izango da finantziazio publikoa, kostu osoaren ehuneko jakin batera, adierazita, hala behar izanez gero, dirulaguntzatarako gehienezko zenbatekoa, eskatzaileko edota diruz lagundu beharreko jardun bakoitzeko.

**Hamahirugarrena.- Ebazpena**

Erabakian, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da eta baita ordaintzeko modua, zein programari edo jarduerari ematen zaion, aurkeztu behar diren agiriak eta zein baldintzatan ematen den ere. Erabakia pertsona onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena idatziz jakinaraziko zaie interesdunei, jakinarazpenetarako adierazi duten lekuan. Ebazpenak ez du administrazio bidea agortuko, eta haren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluan.

**Hamalaugarrena.- Laguntzak ordaintzea**

Ordainketa bakarra izango da, eta izenduna, pertsona onuradun bakoitzari ordainduko baitzaio.

**Hamabosgarrena.- Bateragarritasunak**

Dirulaguntza hauek ezin dira bateratu Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzean joan-etorrietarako eta etxebizitzarako ematen dituen laguntzekin, dena dela bekaren mota zein modalitatea. Idatz zati honetan xedatutakoa beteko dela bermatzeko, Gazteriaren Foru Erakundeak laguntzeko eskatu ahal izango die antzeko laguntza programak dituzten beste administrazio eta erakunde batzuei. Gazteriaren Foru Erakundeak, halaber, erakunde horiek dauzkaten datuak erabili ahal izango ditu behar diren egiaztapenak egiteko. Dirulaguntzarako eskaera aurkezteak esan nahi du baimena ematen zaiola Gazteriaren Foru Erakundeari eskatzailearen datuak eskuratzeko eta antzeko laguntza programak dituzten administrazio edo erakundeetan daudenekin alderatzeko.

**Hamaseigarrena.- Ez betetzea**

1.- Baldin eskatzaileek laguntza deialdietan eta oinarri orokor hauetan arautuko baldintzaren bat betetzen ez badute, dirulaguntza baliogabetu egin daiteke, eta dirulaguntza dagoeneko ordainduta badago, eskatzaileak nahitaez dirulaguntza hori itzuli egin beharko du, indarrean dagoen legearekin bat etorriz, Gazteriaren Foru Erakundeak zehaztuko duen eran.

2.- Gazteriaren Foru Erakundeak lege egintza egokiak gauzatu ahalko ditu erabaki honetan xedatutako laguntzen administrazio ebazpenetako ez betetze larriak gertatzen badira, edota ziurtagiri faltsuak eta bete gabeko aitorpenak aurkeztuz gero.

**Hamazazpigarrena.- Argitaratzea eta indarrean jartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratuko dira, eta argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean.

**Hemezortzigarrena.- Interpretazioa**

Gazteriaren Foru Erakundeko Zuzendaritza-Kudeatzailetzak argituko du oinarri hauek interpretatzearen inguruan sortutako edozein zalantza.

**Hemeretzigarrena.- Aplikatu beharreko arauak**

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onartzen duen

uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Aurrekontuen Araubide Ekonomikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, aurrekontuaren arloan indarrean dauden arauak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 16a.– Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea, MANUEL RABANERA MARTÍNEZ DE PISÓN.

presupuestarias, de manera previa a la resolución de la convocatoria, si bien en las respectivas convocatorias podrá limitarse la financiación pública a una determinada proporción de dicho coste total, expresando, si así se considerara conveniente, un importe máximo de subvención por solicitante y/o por actuación a subvencionar.

**Decimotercera.- Resolución**

En la resolución, caso de ser positiva, se hará constar cuantía de la subvención, forma de pago, programa o actividad afectada, documentación a presentar y condiciones en que se otorga, notificándose a las personas beneficiarias, conforme a lo previsto en el art. 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La resolución de la concesión o denegación de la subvención será notificada, de forma escrita, en el lugar que la persona solicitante haya señalado a tal efecto en la solicitud. La resolución no pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso ante el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud.

**Decimocuarta.- Pago de las ayudas**

El pago será único y nominativo a favor de cada persona beneficiaria.

**Decimoquinta.- Compatibilidades**

Las presentes ayudas son incompatibles con las ayudas al desplazamiento y con las ayudas por residencia concedidas por el Gobierno Vasco para cada curso académico, cualquiera que sea el tipo o modalidad de becas en que se incluyan. Para garantizar el cumplimiento de lo dispuesto en este apartado, el Instituto Foral de la Juventud podrá solicitar la colaboración de otras administraciones e instituciones con programas de ayudas similares. Asimismo, el Instituto Foral de la Juventud podrá utilizar los datos existentes en dichos organismos para la realización de las comprobaciones precisas. La presentación de la solicitud de subvención implicará la autorización al Instituto Foral de la Juventud para obtener o cotejar los datos de la persona solicitante con los obrantes en administraciones o instituciones con programas de ayudas similares.

**Decimosexta.- Incumplimiento**

1.- El incumplimiento por parte de las o los solicitantes de las condiciones fijadas en las Convocatorias de ayudas y de las presentes Bases Generales, podrá dar lugar a la cancelación de la ayuda y, en el caso que se haya procedido al abono de la subvención, el o la solicitante quedará obligada a reintegrar la subvención en la forma que se determine por este Instituto Foral de la Juventud, conforme a la legislación vigente.

2.- El Instituto Foral de la Juventud podrá ejercer las acciones legales pertinentes en casos de incumplimiento grave de lo estipulado en las resoluciones administrativas de las ayudas establecidas en este Acuerdo, así como en los casos de falsedad de certificaciones y declaraciones a cumplimentar.

**Decimoséptima.- Publicidad y entrada en vigor**

Las presentes bases serán publicadas en el BOTHA y entrarán en vigor al día siguiente de su publicación.

**Decimoctava.- Interpretación**

Cualquier duda que pudiera surgir en torno a la interpretación de estas bases será resuelta por la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de la Juventud.

**Decimonovena.- Normativa aplicable**

En lo no dispuesto en las presentes bases se regulará por la Norma Foral 3/1997, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava; Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se

aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, Ordenación Presupuestaria vigente; Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo y demás normativa que le sea de aplicación.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2014.– El director-gerente del Instituto Foral de la Juventud, MANUEL RABANERA MARTÍNEZ DE PISÓN.